

MOZIO ARRUNTA

MORLANS-ANOETA ETA ANOETA-LOIOLA ZATIETAN TRENBIDEA ESTALTZEARI BURUZ

Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako **MOZIO ARRUNT** hau aurkezten du, Morlans-Anoeta eta Anoeta-Loiola zatietan trenbidea estaltzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Bada duela hamarkada bat baino gehiago, Amara Berriko bizilagunak, Udalari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen ari zaizkiela Morlans eta Loiola arteko topoko trenbidea lurperatzeko, trenek sortzen dituzten zaratak eta bibrazioak murrizteko.

Eskaera horri erantzunez, 2022an ETSk lizitaziora atera zuen trenbidearen hiri-integraziorako alternatiben azterlana idazteko zerbitzua 130.000 euroko aurrekontuarekin BEZik gabe.

Typsak egindako txosten edo azterlan horretan, hiri-integraziorako 3 alternatiba eskaintzen ziren, horien artean estalketa.

Horri erantzunez, maiatzaren 6an, Amara Berriko 3 bizilagunek agerraldia egin zuten Legebiltzarrean, trenbidearekin pairatzen dituzten zarata-arazoak azaltzeko.

Arazo horri erantzuteko, ETSk pantaila batzuk jartzea proposatu du. Baina, pantaila horiek ez dute konpontzen trenbidearen hiri-integrazioa, eta ez dute bermatzen zarata desagertzea. Typsak egindako "Morlans eta Anoeta arteko trenbidearen hiri-integraziorako alternatiben azterlanean" argi geratu zen, pantailetatik haratago, beste aukera batzuk ere badaudela, hala nola topoa estaltzearena.

Estaldura horrek, zarata-arazoak konpontzeaz gain, metroaren hiri-integrazioa ere konponduko luke; beraz, konponbide integrala da, auzotarren babesa duena eta herritar guztiengan modu positiboan eragingo lukeena, espazio publikoa lortzen delako beste erabilera batzuetarako.



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu



Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia eh_bildu@donostia.eus

Hori guztia dela eta, mozio arrunt hau aurkezten dugu.

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari eta ETSri, Donostiako Udalarekin batera lan egin dezala, Morlans eta Loiola artean topoa estaltzeko irtenbide bat bilatzeko eta ezartzeko, metroaren hiri-integrazioa hobetu eta zarataren arazoa konpon dadin.

Donostian, 2025eko ekainaren 6an

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea

06
2011-
n 1
10655
697
01200
EL
TEE/R
400A/
P2007
CIF
IFK/
IFK/